

EDERTIA

Ertia.—Itzaren sorkun edo erroari gago-kiozala, eder-mordo lez dogu *ertia*; *erti* = *eder-ti*; moltso, meta, ugaritasuna adierazten dau geienbat —*ti* (—*di*) atzizkiak.

Ederra, batez be, izadian daurkigu. Norbaitek esan dau: «Ederra zer ete? Jainkoak izadi gainez zabaldu dauan itzala». Beraz, izadian edo begiz dakusguzan gauzetan eurrez, ibaika, dogu ederra; Jainkoak bai euskuzan, «milla edergarri ixuriz, bere edertasunez jantzi» ingurukoak oro. Eta Orixe'k: «Jainkoa, gauzetan da nolabait ispillutzen».

Eta guk, adi-ezaguera dogun ezkerro, jaso geinke eder ori; bai ta besteai jakinazo be. Onezaz gainera, munduko izakietan aurkitzen dogun eder orren antzekoa geuk be sortu geinke, geure barne-indarrak erabilli ta irabiatuz. Erti-lanak ez dira besterik. Ertilariak, naiz inguruko izakietatik artutako gaiak naiz bere asmamenean sortuak, alkar batu ta nortasun bereziz gatzatu oi ditu. *Ederaldian* dagi au; obeto: goi-argiz nabaritzean, ederra sortzen. Naiz-ta ederra guztiok somatu, a jaso ta aren antzera sortzeko guztiok ez gara gai. Ederra irazan, sortu edo taiutzen dauanari eder-zale, *ertilari* deritxogu; bai ta antzelari be, bere antze, indar, artezi edo maiñaz ederra dagialako.

Ertia, zelanbait esan, *azalez* naiz *barruz* begira geinke. *Azalez* edo kanpotik begiratu-ta, arau edo lege-pillo bat besterik ez dogu sarri, lan bat ondo egiteko zuzentzen gaituna, noski; onela, edozein ertik —*margo-erti*, *ereserti*, *elerti*— bere arau bereziak ditu. *Barruz* begiratu ezkerro, ikasiz edo ekiñean-go lanaren bitartez, edozer gauza nasai-nasai burutzeko, lortzen dan gaitasun edo antzea da.